

Herriko landa-bideetan eta bidegorrian atsedeen-gune jasangarriak jartzeko eskatu du Oñatiko EAJ-PNVk

- **Egungo atsedeen-eremuak orekatzeko eta deskantsatu edo inguruneaz gozatzeko nahikoa banku ez dagoen tokietan beste berri batzuk sortzeko beharra nabarmendu du udal taldeak, herritarren eskaerari erantzuna emateko**
- **Finantzazio iturri gisa, EAJ-PNVk udal gerakina erabiltzea proposatzen du eta horri jarraiki EH Bilduren gobernuak kontu-sail hori Oñati eta oñatiarrentzat onuragarriak izango diren proiektuetara bideratzeko hartutako konpromisoa betetzea espero dute jeltzaleek.**

Oñatik bidegorri bat eta 100 km baino gehiagoko landa bideak ditu eta horietako batzuk kirola egin edota paseatzeko oso erabiliak dira gaur egun. Are gehiago, Oñatiko EAJ-PNVren ustez, oñatiarren osasuna nabarmen hobetu da azken urteotan bide horiei esker.

Era berean, udal taldeak adierazi du bide horietako gune batzuetan atsedeen hartzeko banku ugari daudela, baina, beste batzuetan aldiz, kilometro askotan, eserleku bakar bat ez dagoela azpimarratu du.

Hori dela eta, Oñatiko EAJ-PNVk atsedeen gune horiek orekatzeko eta landa bideetan zein bidegorrian banku berriak jartzeko beharra nabarmendu du "bertatik paseatzen duten pertsonak bertan gelditzeko eta atsedeen hartzeko aukera izan dezaten, naturaz gozatzeko duten bitartean", adierazi du Andoni Altunak, jeltzaleen taldeko ingurumen zinegotziak.

Horretarako, EAJ-PNVk mantentze lanik behar ez duten banku jasangarriak jartzeko eskatu dio EH Bilduren udal gobernuari. Horrela, herritarren eskaera eta behar bati erantzuna emango litzaioke, ondoren, Udalari inolako kostu gehigarriarik eragin gabe.

Proposamen hori aurrera eramanez ahal izateko, EAJ-PNVk egungo atsedeen guneen azterketa sakona egin du eta eremu horietan egon daitezkeen kokapen berriak aztertu ditu. Edozein kasutan, kokalekua zirkuitu horien erabiltzaile oñatiarrek erabaki beharko luketela iritzi du alderdi jeltzaleak.

"Gure ustez, kirolak eta gozamenak eskutik helduta joan behar dute, eta, paseatu, korri edota jogging egiteaz gain, herritarrei naturaz, paseoaz zein inguruneaz gozatzeko aukera eskaini behar zaie. Horretarako, baina, garrantzitsua da egungo atsedeen-eremuak orekatzea eta beste berri batzuk sortzea, eta horien kokapen berria bertako erabiltzaileek erabaki beharko lukete, herri kontsulta edo parte-hartze prozesu baten bitartez", adierazi du EAJ-PNVk.

Azkenik, jeltzaleek finantzazio iturri gisa udal gerakina erabiltzea proposatu dute, eta "EH Bilduren gobernuak bere konpromisoa betetzea eta, gerakina kudeatzeko orduan, gure proposamenak kontuan hartzea espero dugu", amaitu dute.

EAJ-PNV de Oñati pide la instalación de áreas de descanso sostenibles en los caminos rurales y el bidegorri del municipio

- **Señala la necesidad de racionalización de las actuales áreas de descanso y la creación de otras nuevas en aquellos tramos donde no hay suficientes bancos para descansar y disfrutar del entorno, siendo esto algo muy solicitado por la ciudadanía**
- **EAJ-PNV propone llevar a cabo esta propuesta mediante el remanente y confía en que el gobierno de EH Bildu cumpla con su compromiso de hacer uso de éste para proyectos que redunden en beneficios para Oñati y las y los oñatiarras**

El municipio de Oñati cuenta con un bidegorri y más de 100 km de caminos públicos, algunos de ellos muy frecuentados por la ciudadanía para hacer deporte y pasear, gracias a los cuales, EAJ-PNV asegura que la salud de las y los oñatiarras ha mejorado notablemente en los últimos años.

El grupo municipal jeltzale asegura que, en algunos tramos de estos viales hay una gran concentración de bancos donde sentarse para descansar, pero señala que en otros muchos no hay una sola área de descanso en varios kilómetros.

Es por ello que el grupo municipal de EAJ-PNV cree firmemente en la necesidad racionalizar dichas áreas de descanso e instalar nuevos bancos tanto en los caminos públicos como en el bidegorri, de forma que “las personas que caminan o pasean por allí tengan la opción de parar y descansar en ellas, mientras disfrutan de la naturaleza”, ha señalado Andoni Altuna, concejal de medioambiente del grupo jeltzale.

Para ello, EAJ-PNV pide al gobierno municipal la instalación de bancos sostenibles, que no requieran de mantenimiento. De este modo, se estaría respondiendo a una petición y necesidad ciudadana mediante una acción que después no supondrá un coste añadido de ningún tipo al Consistorio.

Para realizar y llevar a cabo dicha propuesta, EAJ-PNV ha realizado un análisis detallado de las actuales áreas de descanso y estudiado las posibles nuevas ubicaciones de dichas áreas, aunque el grupo municipal jeltzale cree que la última palabra deben tenerla las y los oñatiarras usuarios de dichos circuitos.

“Creemos que el deporte y el disfrute han de ir de la mano y que, además de pasear, correr o hacer jogging, se ha de ofrecer a la ciudadanía la posibilidad de disfrutar de la naturaleza, el paseo, las vistas, el entorno... para ello consideramos importante un equilibrio o racionalización de las actuales áreas de descanso y la creación de otras nuevas, cuya nueva ubicación deberían de decidir las personas usuarias de dichos paseos, mediante una consulta ciudadana”, señala EAJ-PNV de Oñati.

Por último, el grupo municipal jeltzale propone que dicha propuesta se lleve a cabo mediante el remanente y confía en que “el gobierno de EH Bildu cumpla con su compromiso y que, a la hora de gestionar el remanente, tenga en cuenta nuestras propuestas”, han concluido desde EAJ-PNV.